

## **MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:**

- Lehen esan bezala, gure produktua arazo ekonomikoak dituzten, aldaketa klimatikoa geldiarazi nahi duten eta kirola egiteko motibazio falta duten pertsonen zuzendua dago.

Lehenik, produktuak argindarraren faktura txikitu egingo duenez nagusiki arazo ekonomikoak dituzten pertsonentzat komenigarria izango da. Nolanahi, bere faktura txikitu nahi duen edozein prentsonarentzat izan daiteke. Hala ere, produktua garestia izan daitekeenez kuotetan ordaintzeko aukera eskainiko dugu. Honela, errenta maila txikiagoa duten pertsonentza eskuragarri egongo da. Gainera, produktua erostean garestia izan arren luzarora begira argindarraren kostua nabarmen txikitu egingo da eta beraz, bezeroak dirua aurreztu ahal izango du.

Bigarrenik, gaur egungo aldaketa klimatikoaren arazoarekin bizitzen hari garen egoeraren aurrean, geroz eta pertsona gehiagok aldaketa sustengatu nahi dute eta ez dakite nola. Gure produktuarekin nahi hau asetzeko gaitasuna izango dute beraien etxeetatik.

Azkenik, kirolaren oinarria konstantzia dela esan daiteke, baina batzuetan motibazio falta eta gaur egungo bizitza erritmoarekin ezinezkoa da hau lortzea. Gure produktuarekin berriz, etxeko erosotasunetik konstante izateko aukera edukiko du bezeroak eta bereziki motibazio galanta.